

**EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN
TELEFONIA FINKO ETA MUGIKORRARI, DATUEI ETA INTERNETI
DAGOZKION ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA
BEREZIEN PLEGUA**

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu hauek aipatzen duten kontratuaren xedea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari telefono finkoaren eta mugikorraren, datuen eta interneten zerbitzuak eskaintzea da. Zerbitzua espedientean dagoen Baldintza Teknikoen Pleguan berariaz deskribatuta dago.

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan jasotako kontratua administratiboa da eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak -Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzekoak- eta hura garatzeko xedapenek arautuko dute; horiez gain, administrazio zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak ere aplikatuko dira.

Administrazio klausulen plegu honek, agindu teknikoaren pleguak eta erantsitako gainerako dokumentuak kontratu izaera izango dute. Kontratuak plegu honen edukari lotuko zaizkio eta haren klausulak kontratuaren partetzat ere joko dira.

Kontratua, erantsitako dokumentuak, edo administrazioak hitzartutakoa betetzeko ematen dituen jarraibideak, pleguak edo bestelako arauak ez ezagutzeak ez du kontratista haiek bete beharretik askatuko.

Plegu hau eta kontratuko gainerako dokumentuetako edozein bat ez baletoz, Administrazio-klausulen plegua nagusituko da, bertan baitaude kontratuko alderdiek onartutako eskubideak eta betebeharrak.

3.- LIZITAZIO-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarria prezio unitarioetan zehazten da.

BEZik gabe, urtean kontratuaren zenbatekoa 28.000 euro izatea kalkulatuta dago.

Kontratuaren prezioa adjudikazioaren ondorioz ematen den hori izango da, eta balio erantsiaren gaineko zerga aparteko partida batean sartuko da.

Kontratuaren prezioaren barruan sartutzat emango dira aplika daitezkeen era guztietako zergak, tasak eta kanonak, bai eta adjudikaziodunak plegu honetan jasotako betebeharren ondorioz izaten dituen gastu guztiak ere.

4.- KONTRATUAREN EPEA

Kontratuak BI URTEKO indarraldia izango du, kontratua sinatzen den unetik zenbatzen hasita. Hala eta guztiz ere, kontratuaren gauzatze-epea amaitzen denean, enpresa adjudikaziodunak kontratu berria legezatu arte zerbitzua eskaintzen jarraitu beharko du. Halaber, kontratuaren baldintzak mantendu beharko ditu.

5.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Honako hauek dira kontratatzeke ahalmena dutenak: pertsona fisiko eta juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, jarduteko erabateko gaitasuna dutenak eta plegu honetan ezarritakoaren arabera kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen dutenak, eta kontratuaren helburuari dagokion gaikuntza profesionala dutenak.

Halaber, ez dute SPKLTBko 60. artikuluan adierazitako galarazpenik izan beharko eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa frogatu beharko dute, SPKLTBko 74, 75 eta 78. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kontratuak egiteko, enpresariak gutxieneko kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte eta jarraian eskatutako agirien bidez frogatu beharko dute:

5.1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

Bide hauetako bat edo hainbat baliatuta egiaztatu ahalko da:

- Finantza erakundeen txostena, edo, hala badagokio, lizitatzailleak arrisku profesionalei aurre egiteko kalte-ordain aseguru bat baduela ziurtatzen duen agiria.
- Enpresaburuak izanez gero, urteko kontuak aurkeztu beharko dira.
- Enpresak azken hiru urteetan egindako lanen guztizko negozio kopuruari buruzko aitorpena.

5.2. Kaudimen teknikoa edo profesionala

Kaudimen tekniko edo profesionala lizitatzaillearen ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna kontuan hartuta baloratuko da.

6.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Lizitazio hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren arabera egingo da, SPKLTBko 170 eta 174. artikuluei jarraituz. Prozedura horren babesean, adjudikazioa kontratazio-organoak modu arrazoituan hautatu duen eskaintzailearen alde egingo da, hautagai desberdinekin kontsultatu eta batekin edo batzuekin baldintzak negoziatu ondoren.

7.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Lizitatuzaileek Euskadiko EGABren egoitzan aurkeztu beharko dituzte eskaintzak (Gran Vía, 81, 7., 48011, Bilbo), **2016ko azaroaren 28ko 12:00 baino lehen**. Postaz ere egin ahal izango da. Halakoetan, enpresak postetxean bidaltze-data justifikatu beharko du, baita Euskadiko EGABri bidali diola iragarri ere. Bi jarduerak, dokumentazioa bidali eta bidali dela iragartzea, finkatu den aurkezpen-epaia (data eta ordua) bukatu baino lehen egin beharko dira.

Enpresek eskaintzak bi gutun-azal itxietan aurkeztuko dituzte: 1 eta 2 izenekoetan. Horietako bakoitzean, barruan zer duten (ondoren adieraziko den bezala) eta lizitatuzailearen izena zein den adieraziko da.

1. gutun-azala: Honako hau idatziko da: "Agiri orokorrak", eta hurrengo agiriak izango ditu:

1.- Lizitatuzailearen nortasunaren egiaztatzea:

- a. Lizitatuzailearen nortasun agiria (notarioak egiaztatutako fotokopia), pertsona fisikoaren edo banako enpresaburuen kasuan.
- b. Enpresaburua pertsona juridikoa bada, Merkatu Sozietatearen eratze eskritura, Merkatu Erregistroan behar bezala inskribatua, edo eratze agiriak, estatutuak edo fundatze egintza, dagokion erregistro ofizialean inskribatutako jarduerari buruzko arauak azaltzen dituztenak, eta legezko ordezkariaren nortasun agiria.
- c. Ahalmen eskrituraren kopia, beste norbaiten ordezkari gisa jarduten bada, bai eta haren nortasun agiriaren fotokopia egiaztatua edo notario lekukotza ere. Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritzako Erregistroan egon beharko da inskribatuta.

2.- Hala badagokio, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta lizitazioaren unean ordainduta edukitzea legez exiji daitekeen urtealdi / aldiko ordainagiria. Zerga ordaintzera behartuta ez badago, halako betebeharrak ez duela dioen aitortzen erantzulea.

4.- Estatuko, erkidegoko eta udalerriko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria edo aitortpena. Adjudikaziodun proposatua izanez gero, lizitatuzaileak konpromisoa hartuko du baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

5.- Lizitatuzailearen aitortzen erantzulea, adieraziz ez daukala SPKLTBko 60. artikuluan kontratatutako zerrendatutako galarazpenik ezta indarreko legedian aurreikusitako bestelako galarazpenik.

6.- Kontratistaren fax zenbakia edo helbide elektronikoa, ebazpenen eta kontratazio espedientearekin zerikusia duten ebazpenen eta gainerako egintzen jakinarazpenak jasotzeko.

7.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko duela egiaztatzen duten agiriak, plegu honetako 5.1 eta 5.2 puntuetan ezarritakoaren arabera.

Lizitatzailleak **Eusko Jaurlaritzaren Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria** aurkezten badu, ez du aurkeztu beharko 1. eta 5. idatz-zatien artean adierazitako nortasunari eta ordezkariari buruzko agiririk, baldin eta ordezkariak aurkeztutako agirietan agertzen den berbera eta kontratuko jardura berbererako bada.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratisten Erregistroko ziurtagiriarekin batera, lizitatzaillearen **aitorpen erantzule bat aurkeztu beharko da**, hor agertzen diren inguruabarrak ez direla aldatu dioena.

2 gutun-azala: Honako inskribapena izango du: **“Eskaintza ekonomikoa eta teknikoa”**. Honako dokumentazio hau jasoko du:

1) Proposamen ekonomikoa

Proposamena behar bezala sinatuta eta datatua egongo da eta eskainitako zerbitzu bakoitzaren kostu unitarioa zehaztu beharko du.

Proposamena aurkezten baldin bada, esan nahi du enpresaburuak plegu honetako klausulak onartzen dituela, baldintzarik gabe eta inolako salbuespenik gabe (SPKLTBEaren 145. artikulua).

2) Eskaintza teknikoa

Eskaintzaren balorazio orokorra egingo da, 8. puntuan deskribatutako parametroen arabera.

8.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri bezala hartuko diren helburu objektiboak gehienez 100 punturen gainean baloratuko dira.

Garrantzian goitik beherako ordenan, lehiaketa adjudikatzeko oinarri bezala hartuko diren irizpide objektiboak honakoak dira eta islatzen diren ehunekoekin bat balioztatuko dira:

- Eskainitako preziorik txikiena. % 55era bitartean.
- Eskainitako proiektu teknikorik onena. % 30era bitartean.
- Saldu osteko zerbitzu teknikoari eta bezeroei arreta eskaintzeko zerbitzuari dagokionez, eskura jarritako bitartekorik onenak eta gehienak. % 15era bitartean.

Eskaintza ekonomikoetan Euskadiko EGABrentzat zerbitzuaren kostu guztia (deien kostua, zerbitzuak eta hornidura osagarriak) kontuan hartuko da eta eskaintza ekonomiko onenari gehieneko puntuazioa emango zaio.

Bigarren irizpidea (proiektu teknikoa) baloratzeko, konponbide teknologikoaren zuhurtasuna, zerbitzuen kalitatea, mantentze-lanak, aldaketaren kudeaketa eta, oro har, proiektuaren plan guztiak kontuan hartuko dira. Lizitatzailleak aurkezten dituen hobekuntzak kontuan hartuko dira: kontratazioaren xede diren zerbitzuekiko prestazio gehigarriak edo osagarriak, Euskadiko EGABren azpiegiturarako hobekuntzak ekipamenduan eta softwarean, kontratazio honekin zerikusia duten zereginak gauzatzeko lizitatzaillearen giza baliabideak, monitorizatzeko-lanak, Euskadiko EGABren gorabeherak kudeatu eta ebaztea eta zerbitzuak hobe ezartzen, baita, ondoren, hobe ustiatzen ere lagunduko duten bestelako hobekuntzak. Horiek ekonomikoki baloratu ahal izango dira eta lizitazioaren prezioarekiko ez dute kostu gehigarriak izango. Halaber, eguneroko kudeaketan laguntzen duten produktu diferentzialak eskaintzea kontuan hartuko da.

Hirugarren irizpidea baloratzeko, lizitatzailleak arreta pertsonalizatua sortzeari dagokionean Euskadiko EGABren eskura jartzen dituen giza baliabideak eta bitarteko teknikoak izango dira gogoan, zehatz-mehatz esanda ondorengoak:

- Arretarako kanalak eta ordutegiak.
- Ardurazko merkataritza-arreta. Atxikitako pertsonaren datuak adieraztea: izena, telefono finkoa eta mugikorra, faxa, e-posta, etab.
- Ardurazko arreta teknikoa. Atxikitako pertsonaren datuak adieraztea: izena, telefono finkoa eta mugikorra, faxa, e-posta, etab.
- Beste batzuk.

Esklusiboki lizitatzailleak aurkeztutako agirien gainean baloratuko da.

9.- KONTRATUA GAUZATZEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak eta kontratistak kontratu bat formalizatu beharko dute, dokumentu pribatuan, 15 egun balioduneko epean, adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, adjudikaziodunak administrazio baldintzen eta baldintza tekniko berezien plegua sinatu beharko du, non eta ez dion sinatzeari uko egiten, dokumentuan jadanik adierazi duelako ezagutzen dituela baldintzak eta oso-osorik onartzen dituela.

10.- ADMINISTRAZIO ETA JURISDIKZIO ESKUDUNAREN ESKUBIDEAK

10,1.- Mugen baitan eta SPKLTBean adierazitako baldintzak eta ondoreak aintzat hartuta, kontratazio organoak administrazio-kontratuak interpretatzeko, hori betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, horiek interes publikoaren arrazoiengatik aldatzeko, ebazteko eta horren ondoreak zehazteko (SPKLTBko 210. artikulua) eskumena du. SPKLTBko 211. artikuluan bildutako prozedura errespetatu beharko da.

10,2.- Administrazio bideari bukaera ematen dioten erabakien aurka bidezko izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoari



jarraituz. Interesdunek haren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahalko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitakoa.

Bilbon, 2016ko azaroaren 11n
Francisco Jose Huidobro Burgos
Batzordeburua